

**BOROAKO ZENTRALA.** Zornotzako alkatearen iritziz, 5.500 lagun arduratuta egotea asko da

# Baldintzak betetzen badira, baimena emango duela berretsi du alkateak

Begoña Azarlovak «oso garrantzitsua» iritzi dio galdeketak lortutako parte-hartzeari

Erredakzioa | BILBO

Begoña Azarloza Zornotzako alkateak atzo adierazi zuenez, joan den igandean Boroako zentral termikoaren ezarpenaren inguruan eginiko galdeketa-ko parte-hartzea «oso garrantzitsua» izan zen. Hori dela eta, «instituzio guztiek kontu handiz bermatu behar lukete arnasten dugun airearen kalitatea eta zornotzarren osasuna», esan zuen EAJko alkateak.

«Ezin dugu ukatu 5.500 pertsona asko direla, eta horiek proiektuarekin arduratuta daude», esan zuen Azarlovak. Ildo horretan gaineratu zuenez, «badirudi ez dugula herritarrak lasaitzeko behar adina lan egin, %43k nahiago baitute proiektua beste autonomia erkidego batean egitea».

## «Geunden lekuan gaude»

Nolanahi ere, ESBren zentralak Espainiako Gobernuaren, Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Europako Batasunaren «filtroak» betetzen baditu, Zornotzako Udalak ESBri obra eta ekimen lizentziak emango dizkiola berretsi zuen alkateak. Hori dela eta, «geunden lekuan gaude», gaineratu zuen Azarlovak.

Zentrala onartu edo baztertzeko Udalak duen eskuduntza bakarria hirigintzako araudia betearaztera mugatzen dela gogoratu zuen, ondoren. Hala,



EGUNKARIA

Begoña Azarloza Zornotzako alkateak dio Udalak ez duela eskuduntzarik lizentzia ukatzeko.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Osasun Sailei eta Bizkaiko Foru Aldundiari dagokie osasunarentzat eta ingurumenarentzat kaltegarri ez izatearen ardura, Azarlovaren esanetan.

Alkateak gehitu zuenez, insituzio horiek dira —beharrezkotzat jotzen badute, behintzat— enpresa sustatzaileari zenbait neurri ezartzeko arduradunak. Zornotzarrek galdeketa era-

kutsitako ardura dela eta, «berreziki zainduko da ESBk balizko baldintza horiek betetzea», esan zuen Zornotzako alkateak.

Bestalde, ESB enpresak informazioa zabaltzeko hotel batean jarritako ofizinen kanpoaldean zentralaren aurkako hainbat aipu agertu dira azkenaldian. EAJko alkateak azaldu zuenez, «beste edozein aipu edo margo bezala ezabatu dira».

Greenpeace talde ekologistak, bestetik, erreferendumaren emaitzak «ingurumenarentzat garaipena» direla esan zuen.

Talde ekologistarentzat kezagarriena da, Boroako zentralaz gain, Bizkaian beste hiru zentral termiko eraikitzea aurrikosten dutela. Hala izanez gero, «inguruko herrietako biztanleen osasunean eragin kaltegarriak sor daitezke», esan zuen.

## IRAKASKUNTZA

### Irakaskuntza pribatua hiru eguneko grebara deitu du ELA sindikatuak

Agentziak | BILBO

Hiru greba egun eta beste hainbat kontzentrazio antolatatu ditu ELAk maiatzeko irakaskuntza pribatuko hitzarmen kolektiboa an akordiorik lortzen ez dela eta.

Jose Mari Gutierrez ELAko irakaskuntza pribatuko ordezkariak adierazi zuenez, abenduan hasi ziren 2002rako hitzarmena lantzen, eta otsailaren 26an puskatu ziren negoziazioak; patronalari eskaintza «serio» bat aurkezteko eskatu zioten orduan. Geroztik, delegatuen bi elkarretaratze eta manifestazio bat egin dituzte, baina ez dute patronalaren erantzunik jaso.

Hitzarmen horretan, ELAren helburua da langileen lan baldintzen eta soldataren homologazioa lortzea. Irakasleen lanaldia laburtzea da sindikatuen beste eskari bat; haien iritziz, sektore publiko eta pribatuaren artean astean bost eskola orduko desberdintasuna dago. Azkenik, ezegonkortasun egoerekin amaitu nahi du, batez ere, hezkuntza bereziko laguntzaileen kasuan. Halaber, haur hezkuntzako langileak hitzarmenean sartzea eskatu dute.

### Mobilizazioak Gasteizen, Bilbon eta Donostian

Aurrerapausorik eman ez denez, mobilizazioak gogortzeko eta presio gehiago egiteko erabakia hartu du ELAk. Hala, ekintzen egutegia aurkeztu zuen atzo. Apirilaren 18an elkarretaratzea egingo dute Gasteizen, apirilaren 25ean Bilbon eta maiatzaren 2an Donostian. Maiatzaren 17, 28 eta 29rako, berriz, grebarako deia egin du.

Bestalde, ELA irakaskuntza arloko gainerako sindikatuei zuzendu zaie. Sindikalismoaren zatiketaren aldeko aukera alde batera utzi, eta mobilizazioekin bat egin dezaten eskatu die EILAS, CCOO, UGT eta LAB sindikatuei. Era berean, jarrera «arduragabea» uzteko eskatu die ELAk.

**AZPIEGITURAK.** Nafarroako moldaketa lanak bukatutakoan hasiko dira lanak, dio Errepide diputatuak

## Jaimek ukatu egin du Gipuzkoak ez duela borondaterik N-121 errepidea konpontzeko

Erredakzioa | DONOSTIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak Irun-Endarlatsa N-121 errepidearen hobetze lanei ekingo die Nafarroako Gobernuak egin behar dituen lanak bukatutakoan, atzo Antton Jaime Gipuzkoako Errepide diputatuak adierazi zuenez.

Jaimek ukatu egin zuen Nafarroako Gobernuak bozeramaile Nuria Iturriagoitiak leporatutakoa, alegia, Gipuzkoako Aldundiak ez duela borondaterik errepide horretako hobekuntza lanak egiteko.

Iturriagoitiak, berriz, esan zuen Nafarroako Gobernuak 2004. urtean hasiko dituela Bera eta Endarlatsa arteko errepide zatiko lanak.

Iturriagoitiak Gipuzkoari leporatu zion jabetzaren inguruko desadostasuna baliatu, eta errepide horretako konpontze lanak atzeratzea. Izan ere, Endarlatsa eta Irun bitarteko zatia, Gipuzkoan egonda ere, Nafarroako Gobernuarena da.

Jaimek erantzun zuen Nafarroarekin izandako harremanak eta elkarriketak ez aurrera eta ez atzera geratu zirela, Nafarro-

ako Gobernuaren «egoskorke-riaren» ondorioz.

Jaimek azaldu zuenez, errepidearen jabetzak Gipuzkoarena izan behar du, eta aurreratu zuen hurrengo Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Plan Nagusian Irun eta Endarlatsa bitarteko errepide zatiko hobekuntza lanak sartuko dituztela. «Nafarroako Gobernuak errepide horretan egiten ari den lanak bukatzen dituenean ekingo diegu lanei», adierazi zuen. Hori gutxi gorabehera 2007. urtean izango dela adierazi zuen Jaimek.

### 1998ko akordioa dagoela oroitarazi du Jaimek

Antton Jaimek oroitarazi zuen 1998an bi administrazioak hitzarmen batera heldu zirela, errepidearen Gipuzkoako zatia hobekuntzaren ezaugarri teknikoaren inguruan. Ildo horretan, adierazi zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak Nafarroako Gobernuari errepidearen jabetza emateko egindako proposamenari emango dion erantzunaren zain dagoela.

Bestalde, PPK atzo exijitu zion Aldundiari desblokeatu dezala egoera, eta ziurtatu, akordio batera heltzeko egin ahal den guztia ez dela egiten ari. Errepidea konpontzeko beharra nabarmendu zuen.